BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4484

EBAZPENA, 2026ko urriaren 6koa, Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita honako hauentzako laguntzen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera: Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioak, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibak.

Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteentzako (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioentzako, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibentzako laguntzetarako deialdiaren 13. oinarriak (2026ko uztailaren 17ko EHAA), prozedura arautzen duenak, ezartzen du Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendariak batzorde bat izendatuko duela, laguntzak esleitzeko proposamena egiteko, honako kide hauekin:

Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzako ordezkari bat, zeina batzordeburua izango baita.

Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Berriztatzea lurralde-burutza bakoitzeko ordezkari bana.

Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzako ordezkari bat, zeina idazkaria izango baita.

Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da emakida-proposamena egiteaz arduratuko diren organoen osaera.

Aurrekarietan jasotakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Ebazpen honetan aipatutako deialdiaren 13. oinarrian jasotako ebaluazio-batzordearen osaeraren berri emango da:

Batzordeburua:

Garbiñe Saenz de Buruaga Garralda Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendaria, edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak:

Margarita Lopez Garcia, Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatzearen ordezkaria.

Teresa León Eguren, Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatzearen ordezkaria

Elena Aizpuru Segurola, Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatzearen ordezkaria.

Idazkaria:

Lorea Aguirrebeitia Castaño, Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzako teknikaria.

Ebaluazio-batzordea balio osoz eratutzat joko da batzordeburua eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzen direnean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 6a.

Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko zuzendaria,
GARBIÑE SAENZ DE BURUAGA GARRALDA.